

Nazionalitateek Estatua ahaztu eta gero eta gehiago begiratuko dute Europara

Katalunia, EAE eta Galizia Estatu arazoetan ez direla sartuko esan du Arzalluzek

P Pk eta PSOEek Estatua-
ren aniztasuna ezagu-
tzen ez duten neurrian, nazio-
nalitateek Estatuari bizkar
emango diote eta Europako
norabidean jarriko dira gero
eta gehiago. Prozesu hori
aurreikusi dute EAJk, CiUk
eta BNGk, eta Estatuaren
eraldaketarako urratsak
zehaztu dituzte.

FL. / Gasteiz

BARTZELONAKO Adierazpene-
an, Estatuaren aniztasuna eza-
gutzeko eskatu zieten PPri eta
PSOEri EAJk, BNGk eta CiUk. Ez
du ematen aholkua onartu dute-
nik, bere horretan segitzen baitu-
te Xabier Arzalluz EAJko lehen-
dakariak adierazi duenez, eta
horrek beste bide bat ekarriko
die Estatuaren baitan dauden
nazionalitateei, hots Kataluniari,
EAERI eta Galiziar: Estatu arazo-
ak baztertu eta Europara begira-
tu. Hala jakinarazi zuen atzo
Arzalluzek Gasteizko Legebiltza-
rrean egiten ari diren jardunal-
dietako atsedean batean: «Gauzek
dauden bezala segitzen badute,
finantzaketa kontuak eta beste
batzuk direla, azkenean leherke-
ta bat izango da. Ezin dute iraun
dauden bezala. Gainera, guk
gero eta gehiago ahaztu egingo
ditugu eta gora begiratuko dugu
gehiago. Ikusiko dugu; gu Estatu
arazoetan ez bagara sartzen, ez
dute uste irabazi handirik izango
dutenik».

Hiru herrialdeetako alderdi
abertzaleek ezinbestekotzat jo
dute Estatuaren eredu aldaztea,
soberania lortzea lehen mailako
aldarrikapena izanik. PPK eta
PSOEek ez dute aintzat hartuko
alderdi abertzaleen ikuspuntua,
aldaketak «eurek nahi dituztenak



Bartzelonako Adierazpenaren sinatzaileak, Ajuria Enean.

JOSEBA OLALDE

bakarrrik» izango baitira buruzagi
jeltzalearen aburuz.

Jose Antonio Ardanza lehenda-
karia, berriz, baikorrango agertu
zen Ajuria Enean hiru alderdietako
ordezkariak egin zien harreraren.
«Epe jakin batean Bartzelonako
Adierazpenean jasotzen diren
zenbait puntu egia bihurtuko di-
ra, besteak beste, Konstituzioa
zenbait arlotan zaharkituta gera-
tu delako», esan zuen.

Arzalluzek, haatik, uste du
nazionalitateen eskariei Estatu-
ak emango dien erantzuna
«berandu» iritsiko dela, eta, gai-
nera, ez dela «zuzena» izango.
«Beldur dira hemendik zer aterako
ote den. Hirurok ados jartzen
bagara kasurik ez digutelako egi-
ten, ikusiko dugu nork ordain-
tzen duen gehiago», esan zuen
Arzalluzek.

Raxoien beldurra • Mariano
Raxoi Administrazio Publikoeta-
ko ministroa, bestalde, kezkatuta
azaldu da alderdi nazionalistek
izan duten bileraren inguruan.
Autonomien garapenerako Kon-
stituzioaren bermea azpimarratu
du, eta Estatuaren eredu aldaz-
tearen aurka mintzatu da.

«Konstituzioaren eta Autonomi
Estatuaren baliogarritasuna
berretsi nahi dut. Bartzelonako
Adierazpenak ez darama inora,
eta espainol gehienek ez dute
autodeterminazioa edo Estatu
konfederala nahi», esan zuen
Kongresuko korridoreetan.

Lehendakariak beste ikuspun-
tu bat agertu zuen. Esan zuen PP
eta PSOE jada jabetu direla
Konstituzioa aldatu beharraz,
batez ere zortzigarren atalari
dagokionez, eta nahiz eta aldake-

tari heltzeko «beldur» diren, esan
zuen Espainiako hauteskundeak
egin ostean litekeena dela Kon-
stituzioaren aldaketa prozesua
abian jartzea. Prozesu horren
emaitzari buruz, itxaropentsu
agertu zen. «Konplexurik eta bel-
durrik gabe, eta pertsonen aska-
tasuna eta arau demokratikoak
izanik muga bakar, ekin beharko
diote lanari, eta hortik aurrera
guztia izango da posible», esan
zuen hiru alderdietako ordezkari-
en aurrean.

Ministroaren ustez, EAJ, BNG
eta CiUren ikuspuntuak ez dute
lekurik gaur egungo European,
integrazioa omen delako dato-
rren Europeanen ikurra. Alderdi
abertzaleek lor ditzaketen akor-
dioek PPK EAJrekin eta CiUrekin
dituen hitzarmenak ez dituztela
baldintzatuko esan zuen. X

**Bakea lortzeko
presoen afera
konpondu behar
dela esan du
SAOIRSEk Iruñean**

■ Espetxeratu
irlandarren senideen
elkarteko kideak
Parlamentuan
izan dira

Juan Kruz Lakasta / Iruñea

SAOIRSE Irlandako preso
errepublikarren senideen
elkarteko kideak azaldu zuten
atzo Nafarroako Parlamen-
tuan Irlandako bake prozesua
martxan jartzeko ezinbesteko-
koa izan dela presoen afere-
ren inguruan akordioa lortze-
a. SAOIRSEko kideak
bakearen bidean aurrera egi-
teko euskal presoak Euskal
Herriratzeko euren esku
dagoen guztia egiteko eskatu
zieten CDN, IU, HB eta EAKo
ordezkariak. Topaketa ez zen
ofiziala izan, herenegun UPNk
eta PSN-PSOEko foru erkidego-
ko legebiltzarrean atzera bota
zutela HBk SAOIRSEko
kideen azalpenak Giza Esku-
bideen Batzordean entzuteko
egin proposamena.

Kazetaririk gabe egin bile-
ran, SAOIRSEko ordezkari
Francis McHughék eta Patricia
Moorek esan zuten hagitik
kezkatuta daudela euskal
presoen egoera dela eta. «Bos-
tehun preso baino gehiago
sakabanaturik egotean, haiek
ez ezik, senidek eta lagunek,
Euskal Herriak ere sofritzen
du», esan zuen McHughék.

«Giza eskubideen urraketa
da Irlandako gatazkako eragi-
leetako bat, hori konpondu
gabe ez dago bake biderik
hasterik», esan zuen Moorek.
McHughék presoen arazoa
konpontzen hasi besterik ez
dela egin adierazi zuen: «Bide
luzea egin behar dugu, eta
lehen pausoak besterik ez
ditugu eman». X

Euskal Herritarrok 45.602 sinadura bildu dituzte hauteskunde zerrenda aurkezteko

■ Preso dauden hautagaien nortasun agiriaren zain dago zerrenda aurkezteko.

Iñaki Uriarte / Bilbo

EUSKAL HERRITARROK taldea
pozik agertu zen herrialde guztie-
tan bildu behar zuen sinadura
kopurua gutxienik bikoiztu egin
delako. Astelehenean sinadura
bilketa hasi eta hurrengo egune-
rako beharrezko kopurua gaindi-
tu zuen EHk. Jone Goirizelaia,
Kepa Gordejuela eta Arnaldo Ote-
gi EAEko zerrendaburuak baikor
agertu ziren «Euskal Herriak di-
tuen erronkei erantzuteko».

Euskal Herritarrok hautes-
elkartek aise gainditu ditu
urriaren 25eko hauteskunde
autonomikoetara aurkeztu ahal
izateko beharrezko zituen 18.250
sinadurak. Hala, pozik agertu

ziren langile, gazte, kulturgile eta
beste hainbat sektoreetako jende-
ak emaniko erantzunarekin.

Izan ere, Euskal Herritarrok
hautes-elkartek 45.602 sinadu-
ra bildu ditu bederatzi egunetan
notarioaren aurrean Euskal
Autonomia Erkidegoko hiru
herrialdeetan. Erdiak (22.630)
Bizkaian bildu ditu, 17.985
Gipuzkoan eta 4.987 Araban.
EHk 10.000 inguru behar zituen
Bizkaian, 5.800 Gipuzkoan eta
2.440 Araban, 18.250 guztira.

Goirizelaia eskertu egin zuen
sinatzaileen esfortzua, eta nota-
riotzek eta haietako langileek egi-
nikoa ere bai. Esan zuenez, nota-
rio batzuek arratsalde ere zabal-
du izan dute sinadurak biltzeko.

«Honek azaltzen diguna da
gizarte babes zabala izan dugula
era horretako plataforma bat
bultzatzeko orduan», azaldu zuen
Kepa Gordejuelak. Halaber,
berretsi egin zuen Euskal Herri-
tarrok plataforma irekia dela
gizarte sektore guztientzat eta
elkarrekin lan egiteko eskaintza
egin zien. Lankidetzaren horren
xede da hauteskundearen aurre-
tik eta haien ostean «topagune
bat izatea arazoak gainditzeko».

Hautagaiak Akordio Naziona-
laren inguruan ardaztu zuen
EHren egitasmoa, berori delako
«kontsentsu esparru bat perso-
na guztientzako». Gordejuelaren
esanetan, «Lizarrako Akordioa
abiapuntu puntu oso garrantzi-



EHko Gipuzkoa, Bizkaia, eta Arabako zerrendaburuak.

XOUSA SIMAL

tsua izan zen Akordio Nazionala
gauzatzeko». «Benetako apustua
orain hasten da, ez hauteskun-
deetan soilik, haien tartean eta
ostean ere bai», esan zuen.

Presoen sinadurak falta dira •
Goirizelaia azaldu zuen hautes-
zerrendak aurkezteko epea hila-

ren 20an amaitzen dela. EH for-
malki aurkezteko egun preso
dauden hiru hautagaien norta-
sun agiriak soilik falta direla
azaldu zuen. Bizkaiko zerrenda-
buruak presoek bizi duten saka-
banekatarik egotzi zituzten zerra-
da formalki aurkezteko dituzten
arazo teknikoak. X